

Protocolo facultativo de la Convención sobre los Derechos del Niño relativo a la venta de niños, la prostitución infantil y la utilización de niños en la pornografía

Asemblea General - Resolución
A/RES/54/263 del 25 de mayo de 2000

Entrada en vigor: 18 de enero de 2002

Los Estados Partes en el presente Protocolo,

Considerando que para asegurar el mejor logro de los propósitos de la Convención sobre los Derechos del Niño¹ y la aplicación de sus disposiciones y especialmente de los artículos 1, 11, 21, 32, 33, 34, 35 y 36, sería conveniente ampliar las medidas que deben adoptar los Estados Partes a fin de garantizar la protección de los menores contra la venta de niños, la prostitución infantil y la utilización de niños en la pornografía,

Considerando también que en la Convención sobre los Derechos del Niño se reconoce el derecho del niño a la protección contra la explotación económica y la realización de trabajos que puedan ser peligrosos, entorpecer su educación o afectar su salud o desarrollo físico, mental, espiritual, moral o social,

Gravemente preocupados por la importante y creciente trata internacional de menores a los fines de la venta de niños, su prostitución y su utilización en la pornografía,

Manifestando su profunda preocupación por la práctica difundida y continuada del turismo sexual, a la que los niños son especialmente vulnerables ya que fomenta directamente la venta de niños, su utilización en la pornografía y su prostitución,

Reconociendo que algunos grupos especialmente vulnerables, en particular las niñas, están expuestos a un peligro mayor de explotación sexual, y que la representación de niñas entre las personas

Haurren eskubideei buruzko Konbentzioaren hautazko Protokoloa, haurren salerosketa, haurren prostituzioa eta pornografian haurren erabilerari buruzkoa

Biltzar Orokorra – 2000ko maiatzaren 25eko A/RES/263 Ebazpena

Indarrean jartzea: 2002ko urtarrilaren 18an

Protokolo honetako estatu alderdiek,

Kontuan harturik Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren xedek aiseago lortuko direla eta bere xedapenen aplikazioa ziurtatzeko, bereziki 1, 11, 21, 32, 33, 34, 35 eta 36. artikuluen aplikazioa, beharrezkoa litzateke estatu alderdiek hartu beharko lituzketen neurriak areagotzea, haurren salerosketa, haurren prostituzioa eta pornografian haurren erabileraren aurka adingabeen babesa bermatzeko,

Kontuan harturik orobat, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan, haurren eskubidea aitortzen dela esplotazio ekonomikoaren eta arriskutsuak izan daitezkeen lanak egitearen aurka babestuak izateko, eta baita euren heziketa oztopatu edo euren osasuna, garapen fisikoa, adimenarena, espirituala, morala edo sozialari eragin diezaioketen lanak egitearen aurka babestuak izateko,

Zinez kezkatuak direla adingabeen nazioarteko salerosketa ugariak eta horren hazkuntza nabarmenaz; salerosketa horren xedea haurren salmenta, horien prostituzioa eta pornografian erabiltzea delarik,

Adieraziz ardura handikoa dela sexu-turismoaren jardura hedatu eta jarraitua; eta horren aurrean haurrak arrisku handian daudela, horrek zuzenean sustatzen baitu haurren salmenta, eta horiek pornografia eta prostituzioan erabiltzea,

Aitorturik bereziki ahulak direla talde batzuk, bereziki neskatok, eta sexu-esplotazioaren arrisku handiagoaren aurrean daudela; izan ere, sexu bidez ustiatuak diren pertsonen artean neskatok

explotadas sexualmente es desproporcionadamente alta,

Preocupados por la disponibilidad cada vez mayor de pornografía infantil en la Internet y otros medios tecnológicos modernos y recordando la Conferencia Internacional de Lucha contra la Pornografía Infantil en la Internet (Viena, 1999) y, en particular, sus conclusiones, en las que se pide la penalización en todo el mundo de la producción, distribución, exportación, transmisión, importación, posesión intencional y propaganda de este tipo de pornografía, y subrayando la importancia de una colaboración y asociación más estrechas entre los gobiernos y el sector de la Internet,

Estimando que será más fácil erradicar la venta de niños, la prostitución infantil y la utilización de niños en la pornografía si se adopta un enfoque global que permita hacer frente a todos los factores que contribuyen a ello, en particular el subdesarrollo, la pobreza, las disparidades económicas, las estructuras socioeconómicas no equitativas, la disfunción de las familias, la falta de educación, la migración del campo a la ciudad, la discriminación por motivos de sexo, el comportamiento sexual irresponsable de los adultos, las prácticas tradicionales nocivas, los conflictos armados y la trata de niños,

Estimando que se deben hacer esfuerzos por sensibilizar al público a fin de reducir el mercado de consumidores que lleva a la venta de niños, la prostitución infantil y la utilización de niños en la pornografía, y estimando también que es importante fortalecer la asociación mundial de todos los agentes, así como mejorar la represión a nivel nacional,

Tomando nota de las disposiciones de los instrumentos jurídicos internacionales relativos a la protección de los niños, en particular el Convenio de La Haya sobre la Protección de los Niños y la Cooperación en materia de Adopción Internacional, la Convención de La Haya sobre los Aspectos Civiles del Secuestro Internacional de Niños, la Convención de La Haya sobre la

kopurua oso nabarmena da,

Kezkaturik Interneten eta bestelako teknologia baliabide modernoetan dagoen haurren pornografiaren eskuragarritasuna gero eta agerikoagoa dela, eta Interneten Haurren Pornografiaren aurkako Borrokari buruzko Nazioarteko Konferentzia (Viena, 1999) gogora ekarriz eta, bereziki, haren ondorioak, bertan eskatzen baita, mundu osoan zehar horrelako pornografiaren ekoizpena, banaketa, esportazioa, eskualdaketa, inportazioa, hala nahitaezko edukitza eta propaganda zigortzea, eta gobernuen eta Interneteko sektorearen artean lankidetzeta eta elkartze estuago baten garrantzia azpimarratuz,

Uste izanik haurren salmenta, haurren prostituzioa eta pornografian haurren erabilera ezabatzea errazagoa izango dela halakoak eragiten dituzten faktoreen aurrean ikuspegi orokorra hartzen bada; faktore horiek dira, besteak beste, azpigaratzea, pobrezia, ekonomia ezberdintasunak, ekitaterik gabeko gizarte-eta ekonomia-egiturak, familien disfunczioa, hezkuntza falta, nekazaritza gunetik hiriarteko migrazioa, sexuan oinarritutako bereizkeria, helduen sexu-portaera arduragabea, tradiziozko jarduera kaltegarriak, gatazka armatuak eta haurren salerosketa,

Uste izanik jendea sentsibilizatzeko ahaleginak egin behar direla, haurren salmenta, haurren prostituzioa eta pornografian haurren erabiltzea ahalbidetzen dituzten kontsumitzaileen merkatua gutxitzeko, eta uste izanik, era berean, faktoreen arteko mundu mailako elkarketa sustatzea garrantzitsua dela, eta nazio mailan errepresioa hobetzea ere,

Aintzat harturik haurren babesari buruzko nazioarteko instrumentu juridikoen xedapenak, bereziki haurren babesari eta Nazioarteko Adopzioaren inguruko Lankidetzari buruzko Hagako Hitzarmena, Haurren Nazioarteko Bahiketaren Ezaugarri Zibilei buruzko Hagako Hitzarmena, Jurisdikzioa, Zuzenbide Aplikagarria, Aintzatespena, Betearazpena

Jurisdicción, el Derecho Aplicable, el Reconocimiento, la Ejecución y la Cooperación en materia de Responsabilidad Parental y Medidas para la Protección de los Niños, así como el Convenio No. 182 de la Organización Internacional del Trabajo sobre la prohibición de las peores formas de trabajo infantil y la acción inmediata para su eliminación,

Alentados por el abrumador apoyo de que goza la Convención sobre los Derechos del Niño, lo que demuestra la adhesión generalizada a la promoción y protección de los derechos del niño,

Reconociendo la importancia de aplicar las disposiciones del Programa de Acción para la Prevención de la Venta de Niños, la Prostitución Infantil y la Utilización de Niños en la Pornografía³, así como la Declaración y el Programa de Acción aprobado por el Congreso Mundial contra la Explotación Sexual Comercial de los Niños, celebrado en Estocolmo del 27 al 31 de agosto de 19964, y las demás decisiones y recomendaciones pertinentes de los órganos internacionales competentes,

Teniendo debidamente en cuenta la importancia de las tradiciones y los valores culturales de cada pueblo a los fines de la protección y el desarrollo armonioso del niño,

Han convenido en lo siguiente:

Artículo 1

Los Estados Partes prohibirán la venta de niños, la prostitución infantil y la pornografía infantil, de conformidad con lo dispuesto en el presente Protocolo.

Artículo 2

A los efectos del presente Protocolo:

a) Por venta de niños se entiende todo acto o transacción en virtud del cual un niño es transferido por una persona o grupo de personas a otra a cambio de remuneración o de cualquier otra retribución;

b) Por prostitución infantil se entiende la utilización de un niño en actividades sexuales a cambio de remuneración o de

eta Guraso Erantzukizuna eta Haurren Babeserako Neurriei buruzko Hagako Hitzarmena, eta baita Lanaren Nazioarteko Erakundearen 182. zenbakidun Hitzarmena, haurren lan modu makurrak debekatzeko eta horiek berehala ezabatzeko egintzari buruzkoa,

Bultzada harturik Haurraren Eskubideei Buruzko Konbentzioak eskuratu dituen laguntza paregabea, horrek erakusten duela haurraren eskubideak sustatzeko eta babesteko atxikimendu zabala,

Aitorturik ondorengoen xedapenak aplikatzeak duen garrantzia: Haurren Salmenta, Haurren Prostituzioa eta Haurrak Pornografian Erabiltzeko Prebentziorako Egintza Programa, bai eta Haurren Sexu-esplotazio komertzialaren aurka Munduko Kongresuak onetsitako Ekintza Programa eta Adierazpena, Stockholmen egina 1964ko abuztuaren 27tik 31ra, eta gainontzeko nazioarteko organo eskudunen erabaki eta gomendioak,

Aintzat harturik behar den legez, herri bakoitzeko tradizioen eta kultura-balioen garrantzia, haurrek babesa eta garapen orekatua izan ditzaten,

Hurrengo hitzartu dute:

1. artikulua

Estatu alderdiek haurren salmenta, haurren prostituzioa eta haurren pornografia debekatuko dituzte, Protokolo honetan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua

Protokolo honen ondorioetarako:

a) Haurren salmenta gisa ulertzen da: pertsona batek edo pertsona talde batek beste bati haur bat eskualdatzeko burututako salerosketa edo bestelako egintza guztiak, ordainketa baten edo beste edozein ordainsariren trukean;

b) Haurren prostituzio gisa ulertzen da: sexu jardueretan haur bat erabiltzea ordainketa edo beste edozein ordainsariren

cualquier otra retribución;

c) Por pornografía infantil se entiende toda representación, por cualquier medio, de un niño dedicado a actividades sexuales explícitas, reales o simuladas, o toda representación de las partes genitales de un niño con fines primordialmente sexuales.

Artículo 3

1. Todo Estado Parte adoptará medidas para que, como mínimo, los actos y actividades que a continuación se enumeran queden íntegramente comprendidos en su legislación penal, tanto si se han cometido dentro como fuera de sus fronteras, o si se han perpetrado individual o colectivamente:

a) En relación con la venta de niños, en el sentido en que se define en el artículo 2:
i) Ofrecer, entregar o aceptar, por cualquier medio, un niño con fines de:

- a. Explotación sexual del niño;
 - b. Transferencia con fines de lucro de órganos del niño;
 - c. Trabajo forzoso del niño;
- ii) Inducir indebidamente, en calidad de intermediario, a alguien a que preste su consentimiento para la adopción de un niño en violación de los instrumentos jurídicos internacionales aplicables en materia de adopción;
- b) La oferta, posesión, adquisición o entrega de un niño con fines de prostitución, en el sentido en que se define en el artículo 2;
- c) La producción, distribución, divulgación, importación, exportación, oferta, venta o posesión, con los fines antes señalados, de pornografía infantil, en el sentido en que se define en el artículo 2.

2. Con sujeción a los preceptos de la legislación de los Estados Partes, estas disposiciones se aplicarán también en los casos de tentativa de cometer cualquiera de estos actos y de complicidad o participación en cualquiera de estos actos.

3. Todo Estado Parte castigará estos delitos con penas adecuadas a su

trukean;

c) Haurren pornografia gisa ulertzen da: edozein bide dela eta, haur baten antzezpen oro, sexu jarduera esanbidezkoa, benetakoetan edo itxurakoetan aritzen denean, edo haur baten genitalen irudikapen oro, horrek, lehentasunez, helburu sexualak baditu.

3. artikulua

1. Estatu alderdi orok neurriak hartuko ditu, gutxienez, jarraian zerrendatzen diren ekintza eta jarduerak euren zigor legerian guztiz barneraturik gera daitezzen, bere lurralde mugen barruan zein kanpoan burutu izan badira, edo banaka edo era kolektiboan gauzatu izan badira ere:

a) Haurren salmentari dagokionez, 2. artikuluan zehazten den moduan:

i) Edozein bideren bitartez, haur bat eskaini, eman edo onartzea, ondorengo helburuekin:

- a. Haurren sexu-esplotazioa;
 - b. Haurren organoekin irabazia lortzeko asmoz egindako besterentzea;
 - c. Haurren derrigorrezko lana;
- ii) Bitartekari gisa, norbaiti haur bat adoptatzeko baimena eman dezala bidegabe eragitea, hori adopzioaren inguruan aplikagarri diren nazioarteko instrumentu juridikoak urratuz egiten delarik;
- b) Prostituzio helburuekin haur bat eskaini, eduki, eskuratu eta ematea, 2. artikuluan ezartzen den moduan;

c) Haurren pornografia ekoiztea, banatzea, zabaltzea, inportatzea, esportatzea, eskaintzea, saltzea edo edukitzea, lehenago adierazitako helburuekin, 2. artikuluan ezarritako moduan.

2. Estatu alderdien legeriaren manuek ezartzen dutenari lotuta, xedapen hauek tenore horretako edozein egintza gauzatzeko saiakera kasuetan eta orobat, sopikun edo partaidetza kasutan aplikatuko dira.

3. Estatu alderdi orok delitu hauek zigortuko ditu euren larritasunaren arabera,

gravedad.

4. Con sujeción a los preceptos de su legislación, los Estados Partes adoptarán, cuando proceda, disposiciones que permitan hacer efectiva la responsabilidad de personas jurídicas por los delitos enunciados en el párrafo 1 del presente artículo.

Con sujeción a los principios jurídicos aplicables en el Estado Parte, la responsabilidad de las personas jurídicas podrá ser penal, civil o administrativa.

5. Los Estados Partes adoptarán todas las disposiciones legales y administrativas pertinentes para que todas las personas que intervengan en la adopción de un niño actúen de conformidad con los instrumentos jurídicos internacionales aplicables.

Artículo 4

1. Todo Estado Parte adoptará las disposiciones necesarias para hacer efectiva su jurisdicción con respecto a los delitos a que se refiere el párrafo 1 del artículo 3, cuando esos delitos se cometan en su territorio o a bordo de un buque o una aeronave que enarbolen su pabellón.

2. Todo Estado Parte podrá adoptar las disposiciones necesarias para hacer efectiva su jurisdicción con respecto a los delitos a que se refiere el párrafo 1 del artículo 3 en los casos siguientes:

a) Cuando el presunto delincuente sea nacional de ese Estado o tenga residencia habitual en su territorio;

b) Cuando la víctima sea nacional de ese Estado.

3. Todo Estado Parte adoptará también las disposiciones que sean necesarias para hacer efectiva su jurisdicción con respecto a los delitos antes señalados cuando el presunto delincuente sea hallado en su territorio y no sea extraditado a otro Estado Parte en razón de haber sido cometido el delito por uno de sus nacionales.

4. Nada de lo dispuesto en el presente Protocolo excluirá el ejercicio de la jurisdicción penal de conformidad con la legislación nacional.

horri egokitzen zaizkien zigorrekin.

4. Euren legeriaren manuek ezartzen dutenaren arabera, estatu alderdiek, beharrezkoa denean, artikuluko 1. paragrafoan zerrendatutako delituengatik pertsona juridikoak erantzule izatea ahalbidetzen duten xedapenak ezarriko dituzte.

Estatu alderdiari aplikagarri zaizkion printzipio juridikoei helduta, pertsona juridikoen erantzukizuna zibila, administrazio arlokoa edo zigor arlokoa izan daiteke.

5. Estatu alderdiek beharrezko lege- eta administrazio-xedapen guztiak hartuko dituzte, haur baten adopzioan pertsona parte hartzaile guztiak kasuan aplikagarri diren nazioarteko instrumentu juridikoen arabera joka dezaten.

4. artikulua

1. Estatu alderdi orok beharrezko xedapen guztiak hartuko ditu 3. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren delituen gain bere jurisdikzioa betetzeko, delitu horiek bere lurraldean edo bere bandera duen itsasontzi edo aireontzi baten barruan burutzen direnean.

2. Estatu alderdi oro, 3. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren delituen inguruan bere jurisdikzioa betetzeko beharrezko xedapenak hartu ahal izango ditu, ondorengo kasuetan:

a) Ustezko delitugileak estatu horren naziotasuna duenean edo bere lurraldean ohiko bizilekua duenean;

b) Biktimak estatu horren naziotasuna duenean.

3. Estatu alderdi orok lehen aipaturiko delituen inguruan euren jurisdikzioa betearazteko beharrezko xedapenak ere hartuko ditu, ustezko delitugilea bere lurraldean aurkitua izan denean eta beste estatu alderdi batera estraditatzeko ez denean, delitua bere naziotasuna duen pertsona batek burutzeagatik.

4. Protokolo honetan xedatutako deusek ere ez du baztertuko nazio legeriaren arabeko zigor jurisdikzioaren egikaritzea.

Artículo 5

1. Los delitos a que se refiere el párrafo 1 del artículo 3 se considerarán incluidos entre los delitos que dan lugar a extradición en todo tratado de extradición celebrado entre Estados Partes, y se incluirán como delitos que dan lugar a extradición en todo tratado de extradición que celebren entre sí en el futuro, de conformidad con las condiciones establecidas en esos tratados.
2. El Estado Parte que subordine la extradición a la existencia de un tratado, si recibe de otro Estado Parte con el que no tiene tratado al respecto una solicitud de extradición, podrá invocar el presente Protocolo como base jurídica para la extradición respecto de esos delitos.

La extradición estará sujeta a las demás condiciones establecidas en la legislación del Estado requerido.

3. Los Estados Partes que no subordinen la extradición a la existencia de un tratado reconocerán que esos delitos dan lugar a la extradición entre esos Estados, con sujeción a las condiciones establecidas en la legislación del Estado requerido.
4. A los efectos de la extradición entre Estados Partes, se considerará que los delitos se han cometido no solamente en el lugar donde ocurrieron sino también en el territorio de los Estados obligados a hacer efectiva su jurisdicción con arreglo al artículo 4.
5. Si se presenta una solicitud de extradición respecto de uno de los delitos a que se refiere el párrafo 1 del artículo 3 y el Estado requerido no la concede o no desea concederla en razón de la nacionalidad del autor del delito, ese Estado adoptará las medidas que correspondan para someter el caso a sus autoridades competentes a los efectos de su enjuiciamiento.

Artículo 6

1. Los Estados Partes se prestarán toda la asistencia posible en relación con cualquier investigación, proceso penal o procedimiento de extradición que se inicie

5. artikulua

1. 3. artikuluaaren 1. paragrafoko delituak, estatu alderdien artean egindako estradizio hitzarmen guztietan estradizioa bera eragiten duten delituen artean barneratuta daudela ulertuko da, eta estradizioa eragiten duten delitu gisa barneratuko dira euren artean etorkizunean egin ditzaketen estradizio hitzarmen guztietan, hitzarmen horietan ezarritako baldintzekin bat etorritz.
2. Estatu alderdi batentzat nahitaezkoa bada hitzarmen bat izatea estradizioa gauzatu ahal izateko, estatu horrek beste estatu alderdi batetik jasotzen duenean estradizio-eskabide bat, horrekin halako hitzarmenik izan gabe, orduan lehenengo estatu horrek konbentzio hau baliatu ahal izango du, behar adinako oinarri juridiko gisa, delitu horien ondoriozko estradizioa gauzatzeko.

Estradizioak bete beharko ditu, zein estatu izan errekeritua eta estatu horretako legeriak galdatutako gainerako baldintzak.

3. Estatu alderdiek, estradizioa hitzarmen bat egotearen menpe jartzen ez dutenetan, onetsiko dute delitu horiek estradizioa eragiten dutela estatu horien artean, estatu errekerituaren legerian ezarritako baldintzen arabera.
4. Estatu alderdien artean estradizioa gauzatu ahal izateko, uste izango da delituak egin direla gertatutako tokian ez ezik, 4. artikuluaekin bat etorritz jurisdikzioa ezartzeko betebeharra duten estatuetakoa lurraldean ere.

5. 3. artikuluaaren 1. paragrafoan aipatzen den delituetako baten inguruan estradizio eskaera aurkezten bada eta estatu errekerituak onartzen ez badu edo ez badu onartu nahi, delitu-egilearen naziotasuna dela eta, orduan, estatuak dagozkion neurriak hartuko ditu kasua bere agintarien eskumen pean jartzeko, bertan epaitua izan dadin.

6. artikulua

1. Estatu alderdiek ahal den laguntza guztia emango diote elkarri, 3. artikuluaaren 1. paragrafoan aipatzen diren delituak direla eta, horren arabera hasten den

con respecto a los delitos a que se refiere el párrafo 1 del artículo 3, en particular asistencia para la obtención de todas las pruebas necesarias para esos procedimientos que obren en su poder.

2. Los Estados Partes cumplirán las obligaciones que les incumban en virtud del párrafo 1 del presente artículo de conformidad con los tratados u otros acuerdos de asistencia judicial recíproca que existan entre ellos.

En ausencia de esos tratados o acuerdos, los Estados Partes se prestarán dicha asistencia de conformidad con su legislación.

Artículo 7

Con sujeción a las disposiciones de su legislación, los Estados Partes:

- a) Adoptarán medidas para incautar y confiscar, según corresponda:
 - i) Los bienes tales como materiales, activos y otros medios utilizados para cometer o facilitar la comisión de los delitos a que se refiere el presente Protocolo;
 - ii) Las utilidades obtenidas de esos delitos;
- b) Darán curso a las peticiones formuladas por otros Estados Partes para que se proceda a la incautación o confiscación de los bienes o las utilidades a que se refiere el inciso i) del apartado a);
- c) Adoptarán medidas para cerrar, temporal o definitivamente, los locales utilizados para cometer esos delitos.

Artículo 8

1. Los Estados Partes adoptarán medidas adecuadas para proteger en todas las fases del proceso penal los derechos e intereses de los niños víctimas de las prácticas prohibidas por el presente Protocolo y, en particular, deberán:

- a) Reconocer la vulnerabilidad de los niños víctimas y adaptar los procedimientos de forma que se reconozcan sus necesidades especiales, incluidas las necesidades especiales para declarar como testigos;
- b) Informar a los niños víctimas de sus derechos, su papel, el alcance, las fechas y la marcha de las actuaciones y la resolución de la causa;

edozein ikerketa, zigor prozesu edo estradizio prozeduraren inguruan, bereziki elkarren arteko laguntza, euren boterearen pean gauzatutako prozedura horietan beharrezko diren froga guztiak lortzeko.

2. Estatu alderdiek artikuluko honetako lehenengo paragrafoaren arabera dagozkien betebeharrak gauzatuko dituzte, elkarri laguntza judiziala eskaintzeari buruz dauden hitzarmenekin bat etorritik.

Horrelako hitzarmen edo akordiorik egon ezean, estatu alderdiek laguntza hori emango diote elkarri euren legeriaren arabera.

7. artikulua

Euren legeriaren xedapenen arabera, estatu alderdiek:

- a) Beharrezkoa denean, ondorengo gaiak konfiskatzeko neurriak hartuko dituzte:
 - i) Protokolo honetan aipatzen diren delituak burutzea edo horiek egitea errazten duten ondasunak, hala nola materialak, aktiboak eta erabilitako beste baliabide batzuk,
 - ii) Delitu horietatik lortutako etekinak;
- b) a) lerrokadako i) puntuan aipatzen diren ondasun edo etekinen konfiskaziorako, beste estatu alderdi batzuek egindako eskaerei bide emango diete;
- c) Delitu horiek gauzatzeko erabili diren lokalak aldi batez edo behin betiko ixteko neurriak hartuko dituzte.

8. artikulua

1. Estatu alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte zigor prozesuaren fase guztietan Protokolo honek debekatutako egintzen biktima diren haurren eskubide eta interesak babesteko eta, bereziki, ondorengo egin beharko dute:

- a) Biktima diren haurren ahultasuna aitortu eta prozedurak egokitu, beraien beharrian bereziak aitortzeko moduan, lekuko gisa deklaratzeko beharrian bereziak ere barne;
- b) Biktima diren haurrei ondorengoaren gaineko informazioa eman: euren eskubideak zein diren, prozesuan zein den euren eginkizuna, zein prozeduraren

c) Autorizar la presentación y consideración de las opiniones, necesidades y preocupaciones de los niños víctimas en las actuaciones en que se vean afectados sus intereses personales, de una manera compatible con las normas procesales de la legislación nacional;

d) Prestar la debida asistencia durante todo el proceso a los niños víctimas;

e) Proteger debidamente la intimidad e identidad de los niños víctimas y adoptar medidas de conformidad con la legislación nacional para evitar la divulgación de información que pueda conducir a la identificación de esas víctimas;

f) Velar por la seguridad de los niños víctimas, así como por la de sus familias y los testigos a su favor, frente a intimidaciones y represalias;

g) Evitar las demoras innecesarias en la resolución de las causas y en la ejecución de las resoluciones o decretos por los que se conceda reparación a los niños víctimas.

2. Los Estados Partes garantizarán que el hecho de haber dudas acerca de la edad real de la víctima no impida la iniciación de las investigaciones penales, incluidas las investigaciones encaminadas a determinar la edad de la víctima.

3. Los Estados Partes garantizarán que en el tratamiento por la justicia penal de los niños víctimas de los delitos enunciados en el presente Protocolo, la consideración primordial a que se atienda sea el interés superior del niño.

4. Los Estados Partes adoptarán medidas para asegurar una formación apropiada, particularmente en los ámbitos jurídico y psicológico, de las personas que trabajen con víctimas de los delitos prohibidos en virtud del presente Protocolo.

5. Los Estados Partes adoptarán, cuando proceda, medidas para proteger la seguridad e integridad de las personas u organizaciones dedicadas a la prevención o la protección y rehabilitación de las

norainokoa, zein prozeduraren datak eta nola doazen horren jarduerak eta, berebat, auziaren ebazpena;

c) Biktima diren haurren iritzi, beharizan eta kezken aurkezpena eta aurrekoak aintzat hartzea baimendu, euren interes pertsonalak ukituak diren jardueretan, nazioko prozedura legeriaren arauekin bateragarria den eran;

d) Biktima diren haurrei beharrezko laguntza eman prozesu guztian zehar;

e) Biktima diren haurren intimitate eta nortasuna behar bezala babestu eta nazioko legeriarekin bat etorri neurriak hartu, biktima horien nortasuna ezagutzera eraman dezakeen informazioaren zabalkundea eragozteko;

f) Biktima diren haurren segurtasunaz arduratu, bai eta euren familia eta euren aldeko lekukoengatik ere, larderia eta errepresalien aurka;

g) Alferrikako atzerapenak eragotzi dela auzien ebazpenean dela biktima izan diren haurrei kalte-ordaina zein ebazpen edo dekretuk aitortu eta horren betearazpenean.

2. Estatu alderdiek bermatuko dute biktimaren adinaren inguruan zalantzak izateak ez duela eragotziko zigor ikerketak hastera, biktimaren adina zehaztera zuzendutako ikerketak barne.

3. Estatu alderdiek bermatuko dute Protokolo honetan zerrendatutako delituen biktima diren haurrei zigor arloko justiziak eman beharreko trataeran, lehentasun osokoa izango dela haurren interes nagusia.

4. Estatu alderdiek neurriak hartuko dituzte heziketa egokia ziurtatzeko, norena eta Protokolo honen arabera debekatutako delituen biktimekin lanean diharduten pertsonena, batez ere arlo psikologiko eta juridikoetan.

5. Estatu alderdiek, beharrezkoa denean, halako neurriak hartuko dituzte, delitu horien biktimen prebentzio, babes eta birgaikuntzarako lanean diharduten pertsona eta antolakundearen segurtasuna

víctimas de esos delitos.

6. Nada de lo dispuesto en el presente artículo se entenderá en perjuicio de los derechos del acusado a un juicio justo e imparcial, ni será incompatible con esos derechos.

Artículo 9

1. Los Estados Partes adoptarán o reforzarán, aplicarán y darán publicidad a las leyes, las medidas administrativas, las políticas y los programas sociales, destinados a la prevención de los delitos a que se refiere el presente Protocolo.

Se prestará particular atención a la protección de los niños que sean especialmente vulnerables a esas prácticas.

2. Los Estados Partes promoverán la sensibilización del público en general, incluidos los niños, mediante la información por todos los medios apropiados y la educación y adiestramiento acerca de las medidas preventivas y los efectos perjudiciales de los delitos a que se refiere el presente Protocolo.

Al cumplir las obligaciones que les impone este artículo, los Estados Partes alentarán la participación de la comunidad y, en particular, de los niños y de los niños víctimas, en tales programas de información, educación y adiestramiento, incluso en el plano internacional.

3. Los Estados Partes tomarán todas las medidas posibles con el fin de asegurar toda la asistencia apropiada a las víctimas de esos delitos, así como su plena reintegración social y su plena recuperación física y psicológica.

4. Los Estados Partes asegurarán que todos los niños víctimas de los delitos enunciados en el presente Protocolo tengan acceso a procedimientos adecuados para obtener sin discriminación de las personas legalmente responsables, reparación por los daños sufridos.

5. Los Estados Partes adoptarán las medidas necesarias para prohibir efectivamente la producción y publicación de material en que se haga publicidad a los delitos enunciados en el presente

eta osotasuna babesteko.

6. Artikulu honetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo akusatuak epaiketa justu eta inpartziala izateko duen eskubideari, eta ez da bateraezina izango eskubide horiekin.

9. artikulua

1. Estatu alderdiek, Protokolo honetan adierazten diren delituen prebentziora zuzendutako legeak, administrazio neurriak, politikak eta gizarte egitarauak onetsi edo indartu, aplikatu eta horiei publizitatea emango diete.

Egintza horien aurrean bereziki kaltetuak izan daitezkeen haurren babesari arreta berezia eskainiko zaio.

2. Estatu alderdiek jendearen sentsibilizazioa bultzatuko dute, baita haurrena ere, modu egoki guztien bidez informazioa emanaz eta Protokolo honetan aipatzen diren delituen inguruan aurreneurrien eta ondorio kaltegarriei buruzko heziketaren eta trebakuntzaren bidez.

Artikulu honek ezartzen dizkien betebeharrak betetzean, estatu alderdiek erkidegoaren parte hartzea bultzatuko dute eta, batik bat, haurrena euren eta biktima izan diren haurrena ere, halako informazio, heziketa eta trebakuntza egitarauetan, nazioarte mailakoak barne.

3. Estatu alderdiek, delitu horien biktimei laguntza egokia emango zaiela ziurtatzeko neurri egingarri guztiak hartuko dituzte, bai eta horien bergizarteratze osoa eta euren sendatze fisiko eta psikologiko osoa ziurtatzeko ere.

4. Estatu alderdiek ziurtatuko dute Protokolo honetan zerrendatutako delituen biktima diren haur guztiak prozedura egokietarako aukera izan dezaten, legearen arabera erantzule diren pertsonen bereizkeriarik gabe, horiengandik jasandako kalte-ordainak lortzeko.

5. Estatu alderdiek, Protokolo honetan zein delitu jaso eta horien publizitatea egiten duen materialaren ekoizpen eta argitalpena debekatzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte.

Protocolo.

Artículo 10

1. Los Estados Partes adoptarán todas las medidas necesarias para fortalecer la cooperación internacional mediante acuerdos multilaterales, regionales y bilaterales, para la prevención, la detección, la investigación, el enjuiciamiento y el castigo de los responsables de actos de venta de niños, prostitución infantil y utilización de niños en la pornografía o el turismo sexual.

Los Estados Partes promoverán también la cooperación internacional y la coordinación entre sus autoridades y las organizaciones no gubernamentales nacionales e internacionales, así como las organizaciones internacionales.

2. Los Estados Partes promoverán la cooperación internacional en ayuda de los niños víctimas a los fines de su recuperación física y psicológica, reintegración social y repatriación.

3. Los Estados Partes promoverán el fortalecimiento de la cooperación internacional con miras a luchar contra los factores fundamentales, como la pobreza y el subdesarrollo, que contribuyen a la vulnerabilidad de los niños a las prácticas de venta de niños, prostitución infantil y utilización de niños en la pornografía o en el turismo sexual.

4. Los Estados Partes que estén en condiciones de hacerlo proporcionarán asistencia financiera, técnica o de otra índole, por conducto de los programas existentes en el plano multilateral, regional o bilateral o de otros programas.

Artículo 11

Nada de lo dispuesto en el presente Protocolo se entenderá en perjuicio de cualquier disposición más propicia a la realización de los derechos del niño que esté contenida en:

- a) La legislación de un Estado Parte;
- b) El derecho internacional en vigor con respecto a ese Estado.

Artículo 12

1. En el plazo de dos años después de la

10. artikulua

1. Estatu alderdiek, beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte nazioarteko lankidetzaren indartzeko, horretarako aldeaniztun, erregio-mailako eta aldebiko hitzarmenak egingo dituzte, horien helburua delarik haurren salmenta, haurren prostituzioa eta pornografian edo sexu-turismoan haurrak erabiltzea saihestea, horrelako egintzak antzematea, ikertzea, epaitzea eta erantzuleak zigortzea.

Estatu alderdiek nazioarteko lankidetzaren eta euren agintarien eta gobernuen kanpoko nazioarteko eta nazioarteko erakundearen arteko koordinazioa bultzatuko dute, bai eta nazioarteko erakundeena ere.

2. Estatu alderdiek biktima izan diren haurren laguntzarako nazioarteko lankidetzaren bultzatuko dute, horien sendatze fisiko eta psikologikoa, bergizarteratzea eta aberriratzeko lortzeko helburuarekin.

3. Estatu alderdiek nazioarteko lankidetzaren suspertzea bultzatuko dute oinarritzeko eragileen aurka borrokatzeko xedearekin, hala nola, pobrezia eta azpigaratzea, faktore horiek haurrak arriskuan jartzen baitituzte, haurren salmenta, haurren prostituzioa eta pornografia edo sexu-turismoan haurrak erabiltzen dituzten ekintzen aurrean.

4. Finantza-laguntza, laguntza teknikoa edo beste modu batekoa emateko baldintzetan dauden estatu alderdiek, hori eskainiko dute nazioartean, erregio-mailan edo aldebiko programen bidez edo beste programa batzuen bidez.

11. artikulua

Protokolo honetan xedatutakoak ezin izango dio haurraren eskubideak egikaritzeko aldekoagoa den edozein xedapeni kalterik egin, ondorengoetako batean jasota badago:

- a) Estatu alderdi baten legerian;
- b) Nazioarteko zuzenbidean, estatu horri begira indarrean dagoen heinean.

12. artikulua

1. Protokolo hau estatu batean indarrean

entrada en vigor del Protocolo respecto de un Estado Parte, éste presentará al Comité de los Derechos del Niño un informe que contenga una exposición general de las medidas que haya adoptado para dar cumplimiento a las disposiciones del Protocolo.

2. Después de la presentación del informe general, cada Estado Parte incluirá en los informes que presente al Comité de los Derechos del Niño, de conformidad con el artículo 44 de la Convención, información adicional sobre la aplicación del Protocolo.

Los demás Estados Partes en el Protocolo presentarán un informe cada cinco años.

3. El Comité de los Derechos del Niño podrá pedir a los Estados Partes cualquier información pertinente sobre la aplicación del presente Protocolo.

Artículo 13

1. El presente Protocolo estará abierto a la firma de todo Estado que sea Parte en la Convención o la haya firmado.

2. El presente Protocolo está sujeto a la ratificación y abierto a la adhesión de todo Estado que sea Parte en la Convención o la haya firmado.

Los instrumentos de ratificación o de adhesión se depositarán en poder del Secretario General de las Naciones Unidas.

Artículo 14

1. El presente Protocolo entrará en vigor tres meses después de la fecha en que haya sido depositado el décimo instrumento de ratificación o de adhesión.

2. Respecto de los Estados que hayan ratificado el presente Protocolo o se hayan adherido a él después de su entrada en vigor, el Protocolo entrará en vigor un mes después de la fecha en que se haya depositado el correspondiente instrumento de ratificación o de adhesión.

Artículo 15

1. Todo Estado Parte podrá denunciar el presente Protocolo en cualquier momento notificándolo por escrito al Secretario

sartu eta bi urteko epean, estatu horrek Haurraren Eskubideen Batzordeari txostena aurkeztuko dio, bertan jasotzen delarik Protokoloaren xedapenak betearazteko hartu dituen neurrien azalpen orokorra, barnean hartuta parte hartzeari eta erreklutamenduari buruzko xedapenak aplikatzearen inguruan hartutako neurriak.

2. Txosten orokorra aurkeztu eta gero, estatu alderdi bakoitzak Haurraren Eskubideen Batzordeari aurkeztzen dizkion txostenetan Protokolo honen aplikazioari buruzko informazio gehigarria ere emango du, Konbentzioaren 44. artikulua ezarritakoaren arabera.

Protokoloaren gainontzeko estatu alderdiek txosten bat aurkeztuko dute bost urtean behin.

3. Haurraren Eskubideen Batzordeak informazio gehiago eskatu ahal izango die estatu alderdiei Protokolo honen aplikazioaren inguruan.

13. artikulua

1. Konbentzioaren estatu alderdi orok edo berori sinatu duenak sina dezake Protokolo hau.

2. Protokolo hau berrespenari lotuta dago eta estatu guztien atxikimenduari zabalik.

Berreste edo atxikitze instrumentuak Nazio Batuetako idazkari nagusiaren eskuetan gordailutuko dira.

14. artikulua

1. Protokolo hau indarrean sartuko da hamargarren berrespen edo atxikitze instrumentua gordailatu den datatik hiru hilabetera.

2. Protokolo hau berretsi duten estatuetan edo Protokolo hau, behin indarrean sartu eta gero, berorri atxiki zaizkion estatuetan, indarrean sartuko da, zein datatan berrespen edo atxikitze instrumentua gordailutu eta data horretatik hilabetera.

15. artikulua

1. Edozein estatu alderdik sala dezake Protokolo hau, Nazio Batuen idazkari orokorrari zuzendutako idatzizko

General de las Naciones Unidas, quien informará de ello a los demás Estados Partes en la Convención y a todos los Estados que hayan firmado la Convención. La denuncia surtirá efecto un año después de la fecha en que la notificación haya sido recibida por el Secretario General de las Naciones Unidas.

2. Esa denuncia no eximirá al Estado Parte de las obligaciones que le incumban en virtud del presente Protocolo respecto de todo delito que se haya cometido antes de la fecha en que aquélla surta efecto.

La denuncia tampoco obstará en modo alguno para que el Comité prosiga el examen de cualquier asunto iniciado antes de esa fecha.

Artículo 16

1. Todo Estado Parte podrá proponer una enmienda y depositarla en poder del Secretario General de las Naciones Unidas.

El Secretario General comunicará la enmienda propuesta a los Estados Partes, pidiéndoles que le notifiquen si desean que se convoque a una conferencia de Estados Partes con el fin de examinar la propuesta y someterla a votación.

Si dentro de los cuatro meses siguientes a la fecha de esa notificación un tercio, al menos, de los Estados Partes se declaran en favor de tal conferencia, el Secretario General la convocará con el auspicio de las Naciones Unidas.

Toda enmienda adoptada por la mayoría de los Estados Partes presentes y votantes en la conferencia se someterá a la aprobación de la Asamblea General.

2. Toda enmienda adoptada de conformidad con el párrafo 1 del presente artículo entrará en vigor cuando haya sido aprobada por la Asamblea General de las Naciones Unidas y aceptada por una mayoría de dos tercios de los Estados Partes.

3. Las enmiendas, cuando entren en vigor, serán obligatorias para los Estados Partes que las hayan aceptado; los demás

jakinarazpenaren bidez. Idazkari orokorrak horren berri emango die Konbentzioaren gainontzeko estatu alderdiei eta Konbentzioa sinatu duten estatu guztiei. Salaketak ondorioak sortuko ditu, Nazio Batuen idazkari nagusiak jakinarazpena jaso eta urtebetera.

2. Salaketa horrek ez du estatu alderdia salbuetsiko Protokolo honen arabera dituen betebeharez, salaketak ondorioak sortu baino lehenagoko egintzen gain.

Era berean, salaketak ez du inola ere oztopatuko Batzordeak data hori baino lehenago hasitako gai baten inguruko ikerketarekin jarraitzea.

16. artikulua

1. Estatu alderdi orok zuzenketak proposa ditzake eta Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku gordailutu ahal izango ditu.

Proposatutako zuzenketak Nazio Batuetako idazkari nagusiak estatu alderdiei komunikatuko dizkie; aldi berean, eskatuko die jakinarazi diezaiotela estatu alderdien Konferentzia baterako deialdia egitea nahi duten, proposamena aztertu eta horren inguruko botazioa egiteko.

Jakinarazpen hori zein datatan egin eta data horren ondorengo lau hilabeteetan estatu alderdietatik, gutxienez, herenak deialdi horren alde egiten badu, idazkari nagusiak konferentziarako deialdia egingo du, Nazio Batuen babespean.

Konferentziara bertaratu eta boto-emaile diren estatu alderdien gehiengoarekin zein zuzenketa onetsi eta zuzenketa horiek onestea Nazio Batuen Biltzar Orokorraren mende utziko da .

2. Artikulu honetako 1. Paragrafoaren arabera onetsitako zuzenketa oro indarrean jarriko da, Nazio Batuetako Biltzar Orokorrak hori onesteaz gain, estatu alderdiek onesten dutenean, bi hereneko gehiengoarekin.

3. Zuzenketa horiek, indarrean jartzen direnean, nahitaezkoak izango dira horiek onartu dituzten estatu alderdientzako;

Estados Partes seguirán obligados por las disposiciones del presente Protocolo y por toda enmienda anterior que hubiesen aceptado.

Artículo 17

1. El presente Protocolo, cuyos textos en árabe, chino, español, francés, inglés y ruso son igualmente auténticos, será depositado en los archivos de las Naciones Unidas.
2. El Secretario General de las Naciones Unidas enviará copias certificadas del presente Protocolo a todos los Estados Partes en la Convención y a todos los Estados que hayan firmado la Convención.

gainerako estatu alderdiek, ordea, Protokolo honetako xedapenak eta aldez aurretik eurek onetsitako zuzenketak betetzen jarraituko dute.

17. artikulua

1. Protokolo hau, Nazio Batuetako artxiboetan gordailutuko da; berebat, kautoak dira arabieraz, txineraz, espainieraz, frantsesez, ingelesez eta errusieraz dauden protokolo-testuak.
2. Nazio Batuen idazkari nagusiak Protokolo honen kopia ziurtatuak bidaliko dizkie Konbentzioaren estatu alderdi guztiei eta Konbentzioa sinatu duten estatu guztiei.